



Arartekoaren 2015S-1727-15 Ebazpena, 2015eko azaroaren 26koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari iradokitzen zaio informatzeko jarduerak abian jar ditzan saltoki gune bateko erabiltzaileei tabakoaren kontsumoari lotutako debekuak gogorarazteko, zehazki, ekainaren 25eko 18/1998 Legean jasotakoak.

Aurrekariak

Kexa honen arrazoia da Osasun Sailak ez diola erantzunik eman pertsona batek egindako kontsultari, esparru zehatz batean, saltoki gune batean hain zuzen ere, erre ahal den ala ez zehazte aldera.

Hori oinarritzat hartuta, informazioa eskatu genion sailari eta, erantzunean, zera azaltzen da:

"XXX jaunak kontsulta bat egin du San Martin plazako saltoki-guneko edo galeriako tabako kontsumoari buruz. Kontsulta hori dela eta, bi gai bereiziko ditugu:

Kontsultaren edukiari berari dagokionez, hau adierazi behar:

Drogamenpekotasunen arloko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzko ekainaren 25eko 18/1998 Legearen 23.1 artikulua dioenez, "debekatuta dago erretzea erabilera publikoko gune itxi eta erdi itxi guztietan. Gune erdi itxiak dira lokal itxi baten kanpoan dauden eremuak, azaleraren %50 baino gehiago lei/atuz edo paretaz estaliak dutenak, kanpoko aireak etengabe egurasten ez eta kea modu naturalean ezabatzeko modurik ez dutenak".

Eta aipatu artikulua 2.h) puntuak beren-beregi debekatzen du erretzea "merkataritza-guneetan, azalera handiak eta galeriak barne"; debeku bera, jasotzen du, orobat, Adikzioei buruzko Legearen proiektuak, Gobernu Kontseiluak onartu baitzuen 2014ko abenduaren 9an, eta Eusko Legebiltzarrean ari baitira izapidetzen egun.

Beraz, galeriaren alboak edo hegala itxi nahiz itxi ez, ezin da galerian erre.

*Egindako kontsulta **erantzunik gabe** geratu dela eta, hau jakinarazten dizuegu: Arartekoaren ofizioa jaso eta zegozkion ikerketak egin ondoren, komunikazio-arazo bat hauteman genuela prozeduran, eta, haren ondorioz, eskaria paper artean nahasi zela. Hain zuzen ere, hasierako eskaria Donostiako Osasun Publikoaren Zuzendariordeztan jaso zuten, eta behar bezala bidali zuten Osasun Publikoaren eta*





Adikzioen Zuzendaritzara, baina, barne-komunikazioko arazo bat medio, eskaria ez zitzaion iritsi halako kontsultez arduratzen den pertsonari.

Alde horretatik jakinarazten dizuegu, beraz, arazoa konponduta dagoela gerora begira.

Barkamen-eskari zintzoa bidaltzen diogu XXX jaunari, eta zure esanetara geratzen gara, bestelako argibiderik beharko bazenu edo.”

Aurrekari horietan oinarrituta, honako gogoetak egin ditzakegu:

Gogoetak

Erantzunik ezaren ikuspegitik abiatuta, kexa bideratu egin dela ondorioztatu dezakegu, kontsultak erantzuna jaso baitu.

Hori bai, osasun administrazioari igorritako idazkia eta kexa hau eragin duen erantzunik eza aztertuz gero, esan dezakegu interesdunak aipatutako saltoki gunean tabakoaren kontsumoarekiko antzeman zuen permisibitatea hizpide zuela.

Tabako kontsumoaren inguruan antzeman zuen permisibitatearen aipamenak, kontsultaz gain, gertakari baten salaketatzat har daiteke –toki horretan erretzen dela-, izan ere, gertakari horrek administrazio arau-hauste bat eragin dezake. Hori ondorioztatu ahal da kontsultaren erantzunean azaldutakoa ikusita.

Kexa ikuspegi horretatik aztertuta, hau da, arauan jaso diren portaera edo arau-hausteena, antzeman dugu idazkian ez dela zehaztu tabako kontsumoa ostalaritzako instalazioetan (tabernak, hortaz, arduradun zehatza daukate) gertatzen den edo kontsumoa tabernetatik kanpo dauden eta gunearen esparru irekiko erabiltzaile diren pertsonen artean gertatzen den.

Arau-haustearen tokia identifikatzeko eragozpen hori eta, horrenbestez, arau-hauste espediente bat abian jartzerakoan balizko erantzulea identifikatzeko eragozpena onartu dugu eta uste dugu kexa azaltzeko interesdunak aurkeztu duen idazkia interesgarria izan daitekeela eta aintzat hartu behar dela prebenitzeko xedearekin, ostalaritzako arduradunei ekainaren 25eko 18/1998 Legean jasotako debekuak gogoraraziz eta erabiltzaileei ere debeku beraren berri emanez.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan xedatutakoari jarraiki, Osasun Sailari honako iradokizun hau igorri zaio:





IRADOKIZUNA

Erabilgarritzat jotzen dituen informatzeko jarduerak abian jar ditzan Donostiako San Martin plazako saltoki guneko erabiltzaileei eta gune horretako ostalaritzako jardueretako titularrei ekainaren 25eko 18/1998 Legean jaso diren tabako kontsumoaren gaineko debekuak gogorarazteko.

